

Arrantzaleen mendeku, mendekuaren lasaitu

Joseba Ossa Altzibar

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1999



Zumaiko Udala

*emskar
txanpan*



Arrantzaleen mendeku, mendekuaren lasaitu

Joseba Ossa Alzibar

Julene Azpeitia 12. ipuin lehiaketa

1999

1. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Joseba Ossa Alzibar (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

XLII. YIN-YANG 1

Lur honetan ez duzu zorionik,
hain gozorik,
ozpin tantarik ez darionik.
Ez eta ere zorigaitzik,
horren garratzik,
ezti tantaz eztitua ez denik.
(Joxe Antonio Artze)

Arrantzalearen mendeku...

Udaberria urratzen hasia da, bizitza berria esnatzen. Bazter guztietan dira ageri aro berriaren zantzuak: aintziretako izotzak pixkanaka-pixkanaka urratzen, zurtasun erraldoi bezain hotza eta laua hausten, gogorra izan arren azpian duen biziaren zaindari den izotz lodi, zurrun eta indartsua desegiten, azpian duen ur epel, xamur eta jostalariaren laztanei esker urtzen; bai, aintzirako erraldoi zuria urratzen, eta biziaren erraldoi handia bere ohantzetik altxatzen: natura esnatzen ari da... negu luze, hotz, geldi eta iluneko lozorrotik ateratzen...

Hegoaldeko hegazti migrariak hasiak dira Valamoko monasterioaren ondoko urkidira hurbiltzen, monje ortodoxoen abesti zerukoien xarmak erakarrita, agian; edo jende hauen errukiz, bakardadea arindu asmoz, konpainia egin nahian, apika. Zuhaitz goiztiar batzuk kimu berritan daude, baina gainontzekoak biluts-bilutsik geratu dira jadanik, neguko jantzi zuria erantzita, udako arropa berdearen zain, udazkeneko hori-gorritasunetatik urrun.

Eta hor dugu Ivan, baso sakonean zur zaharrez egindako etxola zaharrear, monjeena izan arren urrun geratzen den baso ezkutu eta trinko baten erdian, inondik inorako biderik gurutzatzen ez duen txoko eder eta bakartian, edonondik begiratuta ere urrun, neguko elur eta izotz luzeek are luzeago egiten duten bidaien buruan.

Etxola zurez egina. Zur zaharrak, higuak, ederrak. Teiltatu teilari gabea, zurez zur josia, mendeetan zehar maisu zurginek egin bezala. Eta gailurrean, etxola xume eta apala izanagatik ere, hainbat irudi apaingarri eder, errusiarren duintasunaren adierazle. Etxola enborrez egina, enbor luze, gehiegi landu gabeez egina. Leihotxo ongi apainduak eta ate bakarrak soilik hautsitako enbor luzeak. Nekazari eta arrantzalerik xumeen ere duintasunez egiten dituzten etxola horietakoa, etxola alferrikakorik gabea.

Eserita dago Ivan, pentsakor, kasaka eta larruzko bota luzeak jantzita, norabait joateko prest baillitza, luzaroan moztu gabeko bizarra aurpegi serio eta pentsakorrean itsatsita, samovar txikiari begira, ikatz gehiago botako ote dion ala ez, zalantza. Ura laster hasiko da irakiten, eta dena prest du tea paratzeko, te indartsu eta samina prestatzeko. Ikatz gehiagorik ez ipintzea erabaki du. Ez du ikatza sobera. Egia esan, ez ikatza, ezta ia beste ezer ere, bakardadea eta amorrua izan ezik. Garratza da, gero, bizitza... Vodka ere, ezkutuan egindako vodka pattarraren azken ttanttak aspaldi edanak zituen; bestelako konpainiaren faltan bakardadea uxatzen laguntzen zioten alkohol ttantta gazi-gozo haiek lurrunduak ziren betiko.

Eta tea hartu zuen. Aspaldian ez zuen halakorik dastatu, hain te indartsu eta esanguratsurik, hain edabe misteriotsurik, hain sentimendu kontrajarriak eragingo zizkionik: samina eta itxaropena, garraztasuna eta indar berria...

«Bai, oraingoa bai» pentsatu du Ivan atsekabetuak.

Izan ere, Errusiako lurralde ipar hauetan negua beti luzeegia izaten bada ere, aurtengoa bereziki gogorra egin zaio Ivani, gogorregia.

Ez du azken zazpi hilabeteotan inor ikusi, eta bi belarrien artean sortu zaizkionak izan ezik, ez du beste inoren ahotsik entzun. Egun gehiegiz egur hotsak izan ditu lagun bakar, eguzki izpi ahulek etxean leihoetako zirrikituren batetik sartzea lortzen zutenean armairuko ate zaharrek berotasun herabetiari esker handitzean ateratako hotsak, eta izpiak isil-isilik alde egitean ateak bere onera itzuli eta ateratako hots ia ohartezinak, alegia. Eta hanka hotsak, noski; hotzari ihes egiteko asmoz etxola barruko azalera mugatuetan paseatzean artilezko galtzerdiek ia oharkabea ateratako hotsak, hots intziarik.

Gogorra da, gero, bakardadea. Gogorra eta krudela bakardade nahi gabea. Isiltasun inposatua bezain gogorra, edo agian gogorragoa.

Gogorra, krudela, ankerra da norberarena... Jauntxo boteretsuek inposatutako isiltasuna baino krudelagoa, haienari aurre egiteko gutxienez errua nori bota baduzulako, alegia.

Gogorra, krudela, ankerra eta aspergarria, denboraren poderioz erraiak jaten dizkizulako.

Gogorra, krudela, ankerra, aspergarria, itogarria..., irtenbiderik uzten ez dizulako.

Gogorra, zitala, ankerra, bihozgabea, aspergarria, itogarria, krudela...

Eta Ivan Zenaiev arrantzalearen bakardadea hori guztia baino latzagoa da, imajina daitekeena baino askoz astunagoa.

Postaria ere ez zaio etorri iazko udazkenaz geroztik, agian idatziko dionik ez duelako, agian bazekielako Ivan arraro samar zebilela azken urteotan.

Kontuak kontu, behintzat, ez zaio inor joan bisitan; ezta berak inorengana jo ere.

Askotan eskaini diot nire laguntza, leungarri eta kontsolagarri izan dakiokeelakoan. Mila eta bat aldiz esan diot neure beharra duela, nik berarena bezala; behin bada ere, eman diezadala aukera, gozoa izan zitekeela, ederra, eta hain luzaz daramatzen zama astunak arintzen lagun nezakeela...

Baina alferrik. Beti ikusi izan nau begi txarrez, eta beti eman izan dit bizkarra, ezagutuko ez banindu bezala. Beti egin izan dio uko niregana jotzeari. «Zintzoegia» delako, agian? Aurreiritzi gehiegi dituelako, apika? Edo monasterioko fraideen oso lagun ez izan arren haien esanei kasu egiteagatik, akaso? Izan ere, badakit haiek etsaitzat nautela, gaiztoaren ikurretako bat natzaiela, behin baino gehiagotan isilean niregana jo badute ere, beraiek ere gizakiak baitira, batzuetan ezinean aritzen diren gizaki haragikoi bestek bezalakoak.

• • •

Badirudi, ordea, oraingoan Ivanek amore emango duela. Zalantzak ikara eragiten dion arren, barne-barnean urduritasuna nagusitu zaion arren.

Bai, hor doa..., edo agian hobe legoke esatea hor daramadala, laku ertzeko txalupa astun eta zikinerantz, oraindik begirada lurretik altxatu gabe. Burumakur, baina gogotsu, behingoz zerbait egiteko asmoz gainezka bezala.

«Bazen ordua» esan diot neure buruari; baina ez berari, badaezpada ere.

Orain arte bera izan da, eta ez ni, inolako harremanik nahi izan ez duena. Berak egin izan die uko nire eskaintza ugariei, ni nor naizen ondo ez dakien arren. Edo horrexegatik, agian?

Badaezpada ere, isilean zuzenduko natzaio hemendik aurrera harengana jotzen dudak bakoitzean, erantzunik jasoko ez dudala jakinik, erantzunik jasoko ez dudala jakin arren.

«Hemen nauzu, Ivan, zure oinak txaluparantz eramaten, zure eskuek arraunei heltzen dietenean indarra eta arnasa emateko prest, txalupa lakuaren bazter zuretzat ezezagunerantz mugiarazten.

Eta zu... Zu hor, horrelakorik egitera zerk bultzatzen zaituen garbi jakin gabe, begi ezkutuak zuri so dituzula sentitu arren gelditu ere egin gabe, isil-isilik, arraunari tinko eusteko prest.

Semea galdu zenuen, semea betiko galdu, betiko lurrean, errusiar ez izateagatik etsai omen zen auzoko herri txiki haren aurka borrokatzera joan nahi izan ez zuelako, beti gorrotagarri den gerra zikina, gerra zekena egitera joan nahi izan ez zuelako. Eta, azkenean, suaren eskuetan erori zen, suaren garretan, su suntsitzailearen atzaparretan, bizitza hainbeste maite zuen semea. Eta gerraren biktima bihurtu zen seme bakezaleak beste alderako bidaiara azkena egin zuenean harekin joan zinen zu, —gogoz gutxienez bai, ezta?— haren hegoetako luma leun eta gozoen artean ezkutaturik, zure zera bat betirako harekin egongo zelakoan.

Sergei semea, Sergei maitea. Zurekin batera hainbestetan lutoak arrantzatzerara joana, haur txikitan amua mingarriegia zelako sarez aritzeko eskatzen zizun seme laztana, hain gaztetan Alexander kapitain koldarrak indarrez eramana!

Nire beharra zenuen aspaldi, bai, Ivan. Zergatik ez zinen ausartzen urrats bat bera ere ematera? Zergatik hainbeste oztopo, hainbeste traba behar zenuen jarri?

Zoaz, zoaz bai aurrera. Ekin gogor arraunei, ekin zeure indar guztiez, zeure gorputz osoz. Amorruek ez du gorderik behar. Amorruek ez du harrizko etxetzar ilunik behar. Amorruek leiho zabalak ditu beharrezko, haizeak dezan eraman, haizeak zaitzan lasaitu, haizeak diezazun bizitza arindu.

Eta Sergeirena gutxi bailitzan, hor duzu Alexander kapitainaren beste balentria, Alexander maltzur eta malmutzaren koldarkeria. Agian ez duzu zuk zerorrek jakingo, baina San Petersburg aldetik zetozen tropen buruzagi izanik, berea zen inguruko gizon gazte guztiak mendebaldeko fronte berrira bidaltzeko ardura. Ez zuen inongo eskubiderik —ezta aitzakiarik ere— Tatiana emaztea ukitzeko. Baina huraxe zuen gogoko. Hura eta ez beste inor, hark baitzituen gizonezkoak liluratzen dituzten begi eztiak, aurpegi eta azal argiak. Eta Alexanderrek, bularretik zintzilik zituen dominek eragindako harrokeria boteretsu harez, buruzagi izateak eransten bide zion eskubide alegiazko hartaz baliatuz zure kuttunaren jabe ere izan nahi zuen, une batez, zure eztiaren ezti dastatu nahi izan zuen haren baimenik gabe, edertasunik ederrena ere librea dela jakin gabe.

Zer dela-eta utzi zenion Tatiana atzapar gaizto haiekin hartzen?

Barkatu, agian ez nizun hori galdetu behar. Hobe ote dut oraingoan ere isilik geratzea? Urrutiegia joan al naiz? Ez al da ur geldoak astintzea komeni? Baina esan, Ivan, esadazu: zenbat sufrimendu ez ote duzu alferrik gorde? Zenbat malko isuri gabe utzi, barrua jaten?

Barkatu omen diozu, bai, barkatu; baina zenbateraino? Agian ez zebilen oker Dimitri monjea, Valamoko monasterioaren burua, patriarka, Jainkoaren legea barkamena dela esaten zizun bakoitzean. Agian egia da Alexander kapitain boteretsua inoiz maitasunik kausitu ez duen gizagaixo puztu bat besterik ez zela; agian egia da itxurak gordetzeko eta txikitasuna ezkutatzeko jantzen zuen uniforme lodi eta handiaren azpian arima bakarti eta urratua zegoela, bihotz bakarti eta mindua, abandonatua.

Agian Dimitri monje zuhurrak arrazoi zuen Alexander bainuetxe zaharreko saunan, lurrun misteriotsuen artean biluzik ikusi zuenean haren benetako arima galdua ikusi zuela zioenean, eta agian handi itxurako gizagaixo hark ere maitasunaren gozoa zuen beharrezko, zazpi urte besterik ez zituenean umezurtz geratu zenetik begirada leunik dastatu ez zuelako. Segur aski egia da saunan bakar-bakarrik sartu eta uniformeaz eraztearekin batera haren gorputzaren biluztasunak agerian uzten zuela zazpi urteko ume txiki hark, urte asko igaro arren, umezurtz izaten jarraitzen zuela. Egia da su gaineko harri gori haietara ura bota eta lurrun bihurtzen zuen bakoitzean bihotz barreneko gogortasunak bigundu eta lurruntzen zituela, gizagaixo hark giza gaiztoaren uniformeaz jantzen zuen bakoitzean egindako koldarkeria higuigarri haiek min egiten ziotela barne-barnean, han nonbait, bihotzaren zulo ezkutu baino ezkutuagoren batean, eta sakoneko ahots batek halakorik ez egiteko esaten

ziola. Baina zuretzat alferrik zen jada. Pertsonaia nagusitu zitzaion pertsonari, piztia gizonari, indar bortitza barne indarrari, haragi egarria gizalegeari, giza gaiztoak aurea hartu zion gizagaixoari.

Tira, berandu xamar bada ere, eta entzuten ez badidazu ere, ekin, ekin gogor arraunei, ekin gogor izotz gogorren arteko uretan, laster iritsiko baita unea, laster izango baituzu zeure aukera, zeure aukera paregabea — beranduegi ez bada, bederen— kitatzeko zor kitatu gabea, kontuak hartuz izateko librea.

Begiak so dituzu, bai, zuri begira. Ilargia aukeratu duzu lagun, ilargi aurpegi zuria, biribila, ilargi aurpegi betea. Baina zer duzu zuk ilargia, lagun eta soilik lagun, ala lagun eta lekuko? Ez al zenuen, bada, esaten bakar-bakarrik hartuko zenuela mendeku? Ez al zenuen, bada, esaten ez zenuela beste inor gonbidatuko gure festa honetara? Zu eta ni bakarrik, biok elkarrekin, bat eginik egongo ginela? Iluntasunaren beldur, ala? Iluntasun beltzaren beldur?

Agian ongi egin duzu ilargia gonbidatuz, gaua ez baita hain ilun, hain triste, argi zurbilaren azpian... Baina beste lekuko gonbidatu gabeak ere hor dituzu, aintzira ertzeko ihi tenteen artean so, Ivan eroak zer egingo zain.

Ez baitizute inoiz barkatuko zu zeu izana, ez dizute errukirik erakutsiko zeu makurtzen ez bazara. Ez dute inoiz ulertuko zuk Stalin "tsar" berriari buruz esana. Egia, izan ere, hutsaren hurrengo baita bizitza bera jokoan dagoenean, herioaren mehatxua etxeko sukalderraino sartzen denean. Eta ongi egin zenuen behin bakarrik esatean. Nahikoa zen. Lehen aldia bizitzaren egia. Bigarrena, berriz, herioa edo Siberiarako bidaia segurua. Horra hor hautua: bigarrenean aho mutua, edo bestela betirako lutua.

Inguruko begi ilun guztiak hor dituzu, baina lasai, segi aurrera. Ez zaizu damutuko. Zergatik erabaki duzu, bestela, oraingo honetan niregana jotzea? Ez da atzera egiteko garaia. Laster iritsiko zara Azeri-zulora. Eutsi gogor, ez egin atzera. Nork esango du ez duzula horretarako eskubiderik? Zergatik ordaindu behar dituzu zuk besteek kitatu beharreko zorrak? Zergatik izan behar duzu zuk, eta ez beste inork, sufrimenduaren kate luzearen azken katebegia? Badakit Dimitri monje jakintsuak barkatzera bultzatzen zintuela; ez zazpi, baizik eta hirurogeita hamar bider zazpi aldiz barkatu beharra zuela hizpide gai hori ateratzen zen bakoitzean. Barkatzea astunegia denean, ordea, ez dago barkatu beharrik; barkatzeak larri zaurituta uzten zaituenean ez dago ahazten saiatu beharrik, gorroto eta amorrurentzat bide egokia bilatu baizik.

Agian ez duzu jakingo zergatik eraman nahi zaitudan Azeri-zulora. Zuk ez dakizu non atzeman zuten Sergei semea, ezta? Ez dakizu, ezta ere, non ezkutatu zen Alexander kapitaina Tatiana maitearekin.

Nik eramango zaitut hara, Azeri-zulora, eta han atzemango duzu zuk ere zeure biktima, zeure petxeroa, urte luzeetan zehar gordetako arrangura askatzeko aukera. Eta oraingoan ez barkatu; hartzazu apen, har nazazu lasai, beso zabalik. Norbaitek ordaindu beharko du, katea luzatu egin beharko da, bakea lortuko baduzu...

Herriko postariak iragarri zuen Armada Gorria zetorrela, eta adin egokiko gizon guztiak hartuko zituztela aberri berriaren defendatzera, izen berriz bataiatutako Leningrad hiri handia etsaiengandik hurbilegi zegoela-eta mugak bere lekuan ipintzera. Oso gerra erraza omen zen: Errusiako «hartz» erraldoia

Suomi txikiaren aurka, azken honek atzera egingo zuelakoan. Iraultza babestu beharra omen zegoen, ama babesten den bezala.

Sergeik, ordea, bihotzean ongi gordeak zituen zuk sutondoan esandakoak. Bazenekien zein ziren Stalinen asmoak, bazenekien zeinen hotzak diren boterearen atzaparrak. Zuk zeuk beste inork ez bezala jokatu zenuen iraultzaren alde, berdintasunaren alde. Arrantzan ari zinen bitartean Sergeiren bila etorritako soldadu haiek, berriz, ez zekiten nora eta zertara zihoazen, haien urratsen norantza zein zen jakin arren: herri txiki baina tente baten desegitera, lapurretarik lotsagabeenera.

Eta Sergeik ez zuen joan nahi. Amak esan zion non ezkutatu behar zuen, aitonak eta berak soilik ezagutzen zuten leku hartan, inoiz beste inork zapaldu gabeko sasiarteko txoko ilun hartan. Eta ondo egin zuen. Inguru haietan beste inork ez zuen leku hura aurkituko.

Sergeiren bila ateratako gudarosteak amaitutzat eman zituen bilaketa lanak eta herrira itzultzekoa zen, esku hutsik. Dena ondo zihoan zuentzat. Armadaburuak berehala jo zuen txibatoengana, baina alferrik, herriko beste inork ez baitzuen leku hura aurkituko... kaio harengatik izan ez balitz, kaio madarikatu eta nazkagarri harengatik izan ez balitz, kaio koldar, salatari, sasikume... baina hobetik gabeko harengatik izan ez balitz.

Bai, halako batean, atzean geratutako soldadu batzuek mugimendu arraroak sumatu zituzten Azeri-zulo inguruan: kaioak artega, oihuka, norbaitek habia kendu izan balie bezala.

Izan ere, kaioek habia egina zuten leku hartantxe, eta gazte arrotz hura ikustean izutu eta oihuka hasi ziren. Horrexegatik atzeman zuten mutila. Sasi artean arakatu, zuloa aurkitu eta han sartu ziren, ardi galdu eta bakartiaren bila dabilen otso gosetia bezala, katagorri zaurituaren harrapatzera oldartzen den putre gosebera lez.

Alexander kapitaina zinez poztu zen horren berri izan zuenean: beste soldadu bat Armada Gorri Handiarentzat; amildegiaren bide luze eta tristea, aitzitik, zuretzat.

Orain duzu, ordea, zeure ordua. Segi arraunean, ilargiaren begiradapean, izotz pusketa handien artean, bai, horrelaxe. Eta Azeri-zulora iristen zarenean, pinu eta izei ilunen iluntasuna utzi, eta ilargiaren laguntzaz urki zurien enbor zutituak ikusten dituzunean, hasi aparejua askatzen.

Amuan, ordea, zizarearen orde, ipini ezazu «muikku» txiki bat, kaioen mokoek hain gogoko duten mokadu eder horietako bat.

Pazientzia beharko duzu, pazientzia ederra, horrelako arrantza egitera inor ez baitago ohituta, baina egun berria urratu baino lehen, egon zaitez segur, eroriko da...».

• • •

Oraindik ez da irribarrerik ageri haren aurpegian. Bai, ordea, begirada berria, itxaropenerako bidean egon daitekeen begirada urduria. Zertxobait altxatu ditu begiak. Ez zerura, noski. Oraindik ez.

Oraingoaz konformatzen da pixka bat urrunago begiratzearekin, arraunei emeki-emeki eragiten dien bitartean, pita askatu eta muikku txikia pixkanaka-pixkanaka urruntzen ikusten duen bitartean, arraintxoari so eginez, arraintxoari begiratzeak buruari gorantza eragiten dion mugimenduari esker.

Oraingoaz hodeiartzaren marra gaindituko ez duen begirada da berea, begirada oraindik makurtua. Baina garbi ez ikusi arren, norantza eta helburua duen begirada du gordea.

Nekea sumatzen zaio, ezertan hain berandu ibiltzearen nekea... Bakardadera hain ohituta dagoenarentzat, ordea, ez da ia ezer hori baino hobia.

Denbora aurrera, eta ilargia gero eta gorago, gero eta indar handiagoz argitzen. Karnata oraindik bizi-bizirik dago, etengabe mugitzen ari da; gero eta hurbilago dago unea.

Halako batean, hor non agertzen den kaio samalda txikia, gaueko zaintzan aritzen diren horietakoa, mugimendu arraroak sumatuta. Oraintxe du aukera, oraintxe, burua galtzen ez badu...

Eta ez, ez du galtzen, lehen bezala segitzen du Ivanek arraunean. Kaioak ez dira fio, ez oraindik, txaluparen mugimenduak ere ikusten dituztelako.

Baina halako batean, kaiorik gosetienak, kaiorik gutziatsuenak erasora jotzen du, arrain gozoaren hartzera oldartzen da, gutizios, eta bai ondo hartu ere! Oso-osorik irentsi du zirt-zart batean!

«Hortxe duzu, Ivan, hortxe! Tira gogor orain! Tira zeure amorru eta indar guztiaz! Tira tinko, amua ondo sar dadin kaio ederraren eztarriko zuloan! Tira indarrez, eta ez hark sufrituko duenaren beldurrez» esan diot, bere barne ahotsa entzungo duen itxaropenez.

Halaxe egiten ari da Ivan, bere amorru guztiz tiraka, hegaztia txaluparen txopa ondora iristen den arte. Orduan, une batez begietara zuzen-zuzen begiratzen dio animalari, errukiz, baina zalantzarik gabe: «Zure ordua iritsi da!» esaten dio. «Nire ordua iritsi da!» oihukatzen du. Eta etenik gabe ekiten dio lanari. Kaioak gogor borrokatzen du, minez, samaldakideen laguntza eskatuz, baina badirudi haiek bakarrik uztea erabaki dutela. Gorputzez gorputz izango dira borrokak: arrantzalearen eta kaioaren artekoa alde batetik, mendekua eta barkamenaren artekoa, bestetik.

Ivanek hanketatik heldu dio esku batez, eta hegaziaren mokokada bortitzetatik babesten saiatzen da besteaz. Minez dira biak, min saminez, bakoitza berearen defentsan. Lortu du, halako batean, piztia uretatik ateratzea. Gora altxatu du, buru gaineratik ondo gora, aizkolariak aizkora bezala, eta... Zart!, jo du kaioaren burua karelaren kontra, gogo biziz, kolpe bakar batean akabatu nahi izan balu bezala. Odola dago zuakerran eta gilaginean, odol tanta batzuk; baina ez da hil. Hain gogorra izanik, ez du arnasa erabat galdu animaliak, eta erasora jotzeko indarrik ere gelditu zaio. Baita ondo eraso ere! Min egin dio lepoan Ivani, min bihotzean.

Hori ikusita, amorru berrituz ekiten dio bigarren saioari. Oraingoan alboko kolpea eman nahi dio, txaluparen branka zorrotzaren kontra, aizkolariak zutik dagoen enborra mozten dutenean bezalaxe, brankaren zorrotzasunaz lepoa moztuko dion itxaropenez-edo. Baina kale egiten du oraingoan ere! Eskutik ihes egin dio etsaiak! Harrituta geratu da Ivan. Uretan da kaioa. Baina oraindik

amua eztarrian duenez, eta amua pitan lotuta, erraz berreskuratu du hegazi zaurituaren gorputza.

Hirugarren kolpea dator orain, lehenengoan bezala, goitik behera, grabitatea lagun duela... Zast! Oraingoan bai, gorputz geratu da, seko! Amaitu dira kaioaren nekeak; ez, ordea, Ivanenak. Badu oraindik zer atera, badu oraino amorrurik gordeta, erretzeko asko erre gabea, eta kolpe bortitzak ematen jarraitzen du, kaio hilaren gorpua trapu zaharra bailitzan hartuz, bazter guztietan kolpe latzak ematen, erotuta bezala. Horditu da, horditu. Indarkeriaren indarra jabetu zaio une batez. Utzi dio behingoz, bihotzari hitz egiten, bihotzaren alde gordinari, estalkirik edo indarrez inposatutako mugarik gabe; utzi dio barruari aireztatzen, gorrotoari argia ikusten.

Negar zotinka hasi da Ivan, negar malkoz gainezka, negar desesperatuz, kolpeak emateari utzi gabe. Negar mikatz bezain aringarria du, askatzailea. Begirada ere aldatzen ari zaio: gorrotorik gorrienean ere begiak leuntzen ari zaizkio. Baina ez du oraindik etsi: hegoak atera dizkio, lepoa bihurritu, tripak atera eta uretara bota, arrainen bazka izango diren gorpuzki txikituak eskuan hartu eta eromenaren itsutasunaren indarrez bota, bazter guztiak zipriztinduz.

Negarrez darrai Ivanek, negar zaratatsuz. Utzi du bakean kaioa, eseri da txalupako jarlekuan, negarrez dardarka, arnasari eutsi ezinik, negar biziz, negar sakon-sakonez, behingoz negarrari erabat emana... Eta askatu da gizona. Askatu da hainbeste urtez askatu gabeko korapiloetatik. Udaberriko bizi berriarekin batera datorkio bizi eta itxaropen berria. Kaio errugabe batek ordaindu behar izan du beste askoren kaltea, baina ordainduta dago. Berdindu dira bazterrak, baretu dira gogoak, etorri zaio bakea.

...mendekuaren lasaitu

Nik ere hartu dut lasaitu ederra. Beti barkatu behar hori dela-eta aspaldian ez du inork jo niregana, ez zait inor etorri apen bila, nire bila. Batzuetan lepraz jotako izaki sentitu naiz, baina ez dut gorputzik, ez dut haragirik, ezta pertsona gisa haragiztatzeko asmorik ere. Askea naiz, haizea bezala, gizakiok dituzuen muga horiek gabea. Eta sutan ipintzen naizenean arriskutsua izan banaiteke ere, badakit neurritz jokatzeko, erre gabe berotzen.

Bai, horrelako giroan jasangaitza egin ohi zait arnasa hartzea, eta ito beharrean sentitu naiz azkenaldi honetan. Baina askatu naiz ni ere. Askatu naiz hainbeste urtez askatu gabeko korapiloetatik. Udaberriko bizi berriarekin batera datorkit niri ere bizi eta itxaropen berria. Hamaika errugabek ordaindu behar izan dituzte gaizki bideratutako amorruren amorrua, besteen hobenak. Berdindu dira bazterrak, baretu dira gogoak, eta etorria zait —niri ere— bakea.